

## **Argizaria egurra argitzeko**

- Eta errain dauxut zera're, etxen egiten zuxun lehengo, eztia biltzen zuxun etxean, eztia.
- Ba.
- Erlik ibiltzen zitxun, eztia egiten zuxun, eta eztia tinkatu ta ezko hura're egosarazten zuxun hurian, egosaraz eta, zaku batzutan eta dilindan ezar ta hura pasatzen zuxun, bi hariakilan untsa tinkatuz, ta gero ezko hura hurain gainian ezarri, txabal-txabala txukatzen zuxun, eta gero hura biltzen gintxin, eta hurtarazten eta gero bola batzutan hur txorta bat ezar ta hartan korda ttipiño batzuekilan ezartzen ta gero han eta gogortarazten. Eta gero ezko hura baliatzen ginixin ganbarak eta zolak eta denak zilatzen zitxun eta ezkoakilan.
- Ezkoakilan.
- Ba, eta ezkoain hedatzeko ere bazuxun makil espresa bat eta beherian eta eh badakixu izuzki giderra bezala, eta gero beherian bazuxun bi plaketa hola, eta gero plaketa baño hola zabaltzen zuxun, ezkoa hain artian sartzen, eta gero hura hola mar... hala ibiliz eta haikilan eta egiten xindien eta ezkoa hedatzen eta barnetan.
- Eta horrek baliatzen...
- Hori argitzeko bazt.... barnia garbitzeko, argitzeko.
- Ah, ados. Eta argitzeko erabitzen zinutena lino, liñu...
- Ba gero broza, gero brozaikilan egiten gintxin. Gero ankoztika're etxen egiten ginxin. "essence de térébenthine" puxiño bat eta "essence de térébenthine" erosten zuxun, eta gero etxean ezkoa hurtarazten, "essence de térébenthine"-aikilan nahasten ta haikilan ankoztikatzen. Ba!
- Hori hola argitzeko eta...
- Ba eta

### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala